

B

BARREN

TOKIKOM



**Udal Musika Bandak,
125 urte**



360 metro karratuko pabilioia - Albitzuriko Industrigunean - Finantzaketarako erraztasunak
DEBA BEHEKO INDUSTRIALDEA S.A.
 Ibaitarte Kalea 5 20870 Elgoibar. Tel.:943 74 11 26 Fax.:943 74 41 14
 e-mail.: debabeheko@industrialdea.spri.es

aldaketarako guneak
 espacios para la transformación

DEBA BEHEKO
 INDUSTRIALDEA



EUSKADI *Goza ezazu*
 EUSKADI *Saborizela*



Aukeratu pikantearekin nahiz pikanterik gabe!

Janari azkar eta zapoetsua

Plater konbinatuak eta menuak ere baditugu.

✓ **Dohram**



✓ **Lahmacun**



✓ **Kebab**



✓ **Patatak, Entsaladak, ...**



San Frantzisko, 58 behea • ELGOIBAR
 Tel.: 688 634 356



Eramateko eskaera egin dezakezu!


Oihu gorgarriak

Argi dago mundua inkontzientea eta ezegonkorra dela. Bat-batean kalean eta leku publikoetan burka erabiltzea debekatzen dugu. Ez al daukagu arazo garrantzitsuagorik? Debeku honek bide onetik eramango gaituelakoan gaude, gainera. Non geratzen dira hilketak eta garrantzitsuagoak diren milaka gauza? Musulmanen berezko janzkera erlijioso hori haien eremu pertsonalera murriztu beharko litzatekeela uste dugu, gainera. Gutxienez hori espero dugu. Nolakoak gara gu? Nolakoak dira gure ohiturak? Era berean dabilta mojak, harat-honat, soineko erlijiosoekin paseatzen. Eta sexu bereizketaz hitz egiten badugu? Ez al dugu ba gure umeen sexua koloreekin bereizten? Arrosa eta urdina, kolore horiekin kondentzen ditugu txikitatik.

Burka debekatzea Mendebaldekoen beste eragozpen bat besterik ez da, laster edo beranduago etengabe berotzen ari den lapikoa lehertzen den arte. Badago guzti honetan jakin beharreko zerbait ordea: Koranetik datozen errituak. Eta ez dira, hain zuzen ere, burka janztearenak. Zoritxarrez urrunago heltzen dira. Emakumeak gizonen azpitik uzten dituztenak

dira. Ezagunenetakoa klitoriaren erauzketa izango da ziurrenik, emakume gazteak torturatzen dituztelako euren ehun genitalak kenduz. Noren buruan sartzen da hori? Ematen duenez Koraneko errituak askorentzat dira garrantzitsuak. Gure ohituren parte izan ez arren, existitzen direla jakin behar dugu. Burka debekatzeak ez du ezertarako balioko, ez du ezer konponduko, janzteko era bat besterik ez delako. Klitoria erauztea eta horren pareko ohitura erlijiosoak ez dira sinpleak, ez dira janzkerak. Mina, estuasuna, itomena eta larritasuna eragiten dute. Azken finean, emakume gazte baten oihuak dira, horrelako errituak kentzeko erregutzen duten oihu gorgarriak.

Horiek dira salatu eta debekatu beharreko ohiturak, burka janztea baino haratago doazenak, azken batean tortura hutsa direnak.



Jairo Berbel

"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitez gurekin harremanetari: 943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

**“Horiek dira salatu eta debekatu beharreko ohiturak,
burka janztea baino haratago doazenak, azken batean tortura hutsa direnak”**

ELGOIBARKO UDAL MUSIKA BANDAK 125 URTE EGIN DITU!



www.elgoiBARREN.net

**Egin
klik
eta
ikusiko
duzu**

 **ELGOIBARKO IZARRA**
KULTUR ELKARTEA

“la beste 125 urte egiten dituen bandak”

JOSE ANTONIO OSORO, BANDAKO ZUZENDARIA

125 urte egin ditu Elgoibarko Udal Musika Bandak. 1885eko uztailaren 1ean irten ziren estreinakoz kalera, eta atzo, 125 urte geroago, ekitaldi hura errepi-katu zuten. Ospakizun ofiziala bihar egingo dute, eta domekan kontzertu berezia eskainiko dute Herriko Antzokian. Hamalau lagunek osatzen zuten banda 1885ean, eta hamalau lagunek joko dute pieza bat kontzertu horretan. (Egitaraua agendan).

Ainhoa Andonegi



Egingo diguzu 125. urteurreneko ospakizunen balorazioa?

Ekitaldiak ondo doaz. Antolatu ditugun kontzertuetan parrokia bete egin da, eta pozik gaude. Abuztuaren 22an Irungo Musika Bandaren kontzertua izango da, eta irailaren 25ean Bilboko banda etorriko da. Horrekin amaituko dira ospakizunak, eta azaroan, Santa Zezilia egunean, geuk eskainiko dugu kontzertua. Lan handia egin dugu, dena bandako kideok antolatu dugulako. Laguntza handia izan dugu, hala ere, eta denei eskerrak eman nahi dizkiet. 100.000 euro inguruko aurrekontua izan dugu ospakizunak antolatzeko. Eta bereziki, eskerrak eman nahi dizkiogu Benantziori, parrokia utzi digulako. Herriko Antzokiko akustika hobea da, baina jende gutxiago kabitzen da, eta pena izango litzateke jendea kanpoan geratzea. 800 lagun inguru sartu ziren holandesen kontzertuan, eta Herriko Antzokian egin izan bagenu, erdia geratuko litzateke sartu ezinda.

Nola lortu du Elgoibarko Udal Musika Bandak etenik egin gabe 125 urte betetzea?

1885eko uztailaren 1ean jo zuen estreinakoz Elgoibarko Udal Musika bandak. Ildonso Lizarriturri zen zuzendaria, eta hama-

lu lagunek osatzen zuten taldea. Orain gu gaude hemen, baina gure aurrekoek lan handia egin zuten, eta gure atzetik ere etorriko dira beste batzuk. la beste 125 urte egiten dituen bandak!

“Gerra denbora izan zen bandarentzako unerik zailena”

Zein izan da bandak bizi izan duen unerik zailena?

Gerra denbora izan zen, dudarik gabe, bandarentzako unerik zailena. 1936tik 1939ra bitartean hamar lagun inguru geratu ziren bandan. Ez zuten ekitaldi askorik egin garai hartan, baina nola edo hala aurrera egin zuten. Ignacio Bereziartua izan zen zuzendaria gerra garaian, eta gero Gonzalez Bastidak hartu zuen zuzendari-

tza. Gerra ondoren hartu zuen bandak berri ere indarra. Ni 1957an sartu nintzen bandan, 12 urterekin. Hasieran saxofoia jotzen nuen, eta ondoren klarinetea. Azaroan 53 urte egingo ditut bandan.

Jende asko erakartzen du Elgoibarko musika bandak. Zein da zuen sekretua?

Ez dago sekreturik: lana, lana eta lana. Kontzertuetara 250-300 lagun inguru etortzen dira batez beste, eta askotan Herriko Antzokia bete egiten da. Pentsara bidaltzen dugu informazioa eta Plaza Handian ere kartela jartzen dugu kontzertua baino lau egun lehenago. Horrek asko laguntzen du. Gainera, talde ona daukagu, eta kontzertu politak eskaintzen ditugu. Bestalde, Txomin Mujikak pieza bakoitzaren azalpena ematen du jotzen hasi aurretik, eta ikusleak askoz gehiago sartzten dira obran. Jendea irribarrez irteten da antzokitik, eta horrek esan nahi du gustura geratu direla. Lana da gure sekretua.

Zertan aldatu da musika banda 125 urte horietan?

Asko aldatu da. 1885ean ez zegoen ez irratirik eta ezta telebistarik ere. Musika entzuteko aukera bakarra parrokiako organoa entzutea zen. Musika kalera ateratzea izan

zen banda sortzearen helburua. Domekero eskaintzen zuten bandak dantzaldia plazan, eta jende pila bat joaten zen musika entzuterako edo dantzan egitera. Zenbat bikote irten ote dira dantzaldi horietatik! Ez zegoen neska-mutilak elkartzeko beste aukerarik. Batzuek mendian ezagutzen zuten elkar, baina gehienak bandako dantzaldietan egiten ziren bikote. Garizuman debekatuta zegoen, baina bestela, urteko domeka gutietan eskaintzen zuten bandak dantzaldia. Prozesioak ere gaur egun baino gehiago izaten ziren, eta santuen egun gehiago ospatzen ziren. 70eko hamarkadan dantzalekuak zabaltzen hasi ziren, eta plazako dantzaldiak egiteari laga zitzaion. Gaur egun kontzertuetan espezializatu da banda, batez ere. Ez da gauza bera plazan edo Herriko Antzokian jotzea. Antzokiak akustika oso ona dauka, eta jendea isil isilik egoten da. Horrek asko motibatzen du.

Urteko egitarauaren barruan, zein izaten da zuentzako bereziena?

Guretzako Santa Zezilia eguna berezia izaten da, geure eguna delako, baina San Bartolome eguna da bereziena. Horrelako eguna herri gutxitan ospatzen da. Herriarrek herriarentzat eginiko eguna da. Goizean goizetik hiru kalejira egiten dira: txistulariena, dultzaineroena eta bandarena. Ondoren, prozesioa egiten da txistulariekin eta

bandarekin. Meza nagusira herritar pila bat joaten dira, eta soka dantza ere ikusgarria izaten da. Eta gero, bandaren kontzertua. Ederra izaten da San Bartolome eguna.

“Ikusten ez den lan asko dago batutaren atzean”

Musikarako zaletasun handia dago Elgoibarren?

Bai, musikarien harrobi ona daukagu, eta bandak etorkizun ona izango duela uste dut. Musika Eskolak lan handia egiten du, eta gazteak oso ondo prestatuta iristen dira bandara. 52 lagunek osatzen dute Elgoibarko Udal Musika Banda, eta oso talde kompletoa da. Gure herrian instrumentua ikasten duenak irteera dauka, txaranga edo bandan, eta hori oso inportantea da. Orain, gainera, Iban Guineak Big Band taldea sortu du, eta zoragarria da. Elgoibar oso musikazalea da. Txarangak herria saltoka jartzen du, eta hori beste herri askotan

ez da ikusten. Burgoseko banda militarra etortzen zenean ere kalea jendez betetzen zen.

2007an omenaldia egin zizuten, bandan 50 urte bete zenituelako. 125. urteurrenean erretiroa hartuko zenuela esan zenuen orduan. Zer diozu orain?

Horixe da nire asmoa, baina ez dakit lagako didaten. Urtarrilaren 6an zuzendu nuen nik estreinako kontzertua, eta egun berean erretiratzea gustatuko litzaidake.

Zuzendari izan aurretik bandako musikari izan zinen. Zer gustatzen zaizu gehiago?

Biak gustatzen zaizkit. Zuzendari izateak gauza asko eskatzen ditu. Denekin ondo konpondu behar zara, eta batzutan haserretu ere egin behar izaten da. Batutaren atzean lan handia dago; ikusten ez den lan asko dago. 53 urte dira bandan sartu nintzela, eta 27 egingo ditut Errege Egunean zuzendari bezala. *El poder envejece* izeneko artikulua irakurri nuen egunkarian orain dela gutxi. Zapatero, Obama, Felipe Gonzalez, Ibarretxe eta beste pila bat azaltzen ziren, kargua hartu aurretik eta ondoren. Aldaketa handia ikusten zen. Hegan pasatu zaizkit 27 urte hauek. Orain dela hamar urte aurre-jubilatu nintzen, baina beti izan dut zeregina, eta hori gauza ederra da. Hala ere, gazteei lekua lagatzeko momentua iritsi dela uste dut.




Gaur egungo Udal Musika Bandak 52 partaide ditu: 41 gizon eta 11 emakume.

Musika bandaren historia

Elgoibarko Udal Musika Bandaren historia jaso du Pello Arrieta idazle eta historiagileak. 2008. urte amaieran proposatu zioten Jose Antonio Osorok eta Txomin Mujikak liburua idaztea, eta “ilusio handiz” hartu zuen egitekoa: “Elgoibarko erakunde garrantzitsua da banda, jende asko erakartzen du, oso integratuta dago herrian eta indar handia du”. Urte eta erdiko lana izan da, eta “pozik” geratu da Pello emaitzarekin. Bihar aurkeztuko dute liburua, 12:00etan udaletxeko pleno aretoan. Interesatuak Elgoibarko liburu dendetan eskuratu ahal izango dute.

Bandaren 125 urteko ibilbidea aztertzearekin batera, Elgoibarko historia ikertu du Pello Arrieta liburua honetan. Banda eta Elgoibar lotuta ulertzen ditu Arrieta, eta bere ustez, biak batera aztertu behar dira, banda bera ulertzeko. Historiako beste liburuak idatzi izan dituen bezalaxe, ordu asko eman ditu orain ere Elgoibarko udal artxiboan: “Edu Osoro *Katxok* musika bandari buruzko karpeta bat aurkitu zuen ganbaran, eta informazio interesgarri asko lortu dut han”. Bestalde, Jose Zubiaurre *Ballek* eta Julian Iriondok CD bat grabatu zuten euren garaiko bandari buruzko pasarteak kontatuz, eta informazio hori oso baliagarria izan zaiola azaldu du Pello Arrieta. Talde lana izan dela nabarmendu du, eta liburua egiterakoan eskaini dioten laguntza eskertu du.

Zortzi zuzendari izan ditu bandak, eta liburua zortzi ataletan banatu du. Zuzendari bakoitzaren garaia atal bat eskaini dio



Idefontso Lizarriturri
1885-1888

Elgoibarren jaio zen 1859an, eta berak sortu zuen musika banda 1885ean. Aitarekin ikasi zituen musikako gaiak hasierako urteetan, eta ondoren Madrilgo kontserbatoriora joan zen. Ikasketak bukatzean, Burgoseko katedraleko organista postua hartu zuen. Ondoren, Elgoibarko parrokiaren jardun zuen organista. 1935ean hil zen, 76 urterekin.



Silvestre Ansola
1888-1897

Elgoibarren jaio zen 1848an. Roke Ansola *Erroketxo* txistulariaren seme nagusia zen, eta haren laguntzailea eta ordezkoa ere izan zen txistulariekin. Txistulari peto-petoa zen, eta ia 70 urtez jo zuen txistua. Musika bandako bigarren zuzendaria izan zen. Gai-xotasun baten ondorioz utzi zion txistua jotzeari, eta 1929an hil zen.



Ignacio Bereziartua
1902-1940

1883an jaio zen Beasainen. Mutiko zela Beasaingo parrokiako tiple izan zen, eta ondoren, harmonia, konposizioa, pianoa eta organoa landu zituen. Donostian egin zituen goi mailako musika ikasketak. 1902an Lizarriturrik parrokiako organista postua utzi zuen, eta Bereziartuak hartu zuen. 1940an utzi zuen bandako zuzendari postua. 1958an hil zen.

Ignacio Gonzalez
1940-1944

Bergaran jaio zen 1913an, musika giroko familia batean. 9 urte zituela sartu zen Bergarako musika bandan, eta 27 urterekin hartu zuen Elgoibarko Udal Musika Bandaren zuzendaritza, Ignacio Bereziartuaren dimisioaren ondoren. Elgoibarren aritu eta gero Gasteizko musika bandako zuzendariordea izan zen bost urtez. 2006an hil zen.

Arrietak. Zuzendari bakoitzaren ezaugarriak eta biografia jasotzeaz gain, garai bakoitzari dagokion testuingurua ere landu du. Liburuaren amaieran 125. urteurreneko ospakizunei ere egin die lekua. Bestalde, Joan Mari Andonegi zenak, San Bartolome jaietan bandak ematen zituen kontzertuetako egitarau guztiak jaso zituen 1943tik hil zen arte. Horiek guztiak euskaratu, eta zuzendari bakoitzari dagokion atalean sartu ditu Pello Arrietak.

125 urteko ibilbidean gorabehera asko izan ditu Udal Musika Bandak, Pello Arrietak esandakoaren arabera. "stilu eta tira-bira" handiak izan zituzten garai batean Udalarekin: "Instrumentu eskasak zituzten garai hartan, eta musikariek planto egin zuten berriak lortzeko". Hala ere, Pello Arrietak argi dauka Udal Musika Bandak 125 urte iraun baditu Udalaren eta musikariren interesagatik izan dela: "Musikariek aurrera jarraitzeko ilusioa zeukaten, eta Udalak ere bandaren beharra ikusten zuen".

Udal Musika Bandaren izaera ere aldatu da urte hauetan. Gaur egun kontzertuetan espezializatu da, baina lehen *omnipresentea* zen. Omenaldietan, inaugurazioetan, alkate edo zuzendari ohien hiletetan eta jai egunetako dantzaldietan hartzen zuen parte, besteak beste. "Bandarik ez bazegoen herriko gazteak Eibarrera edo beste herrietara joango zirela uste zuten, eta hori ez zuten nahi agintariek".

Pello, musika zalea

Pello Arrieta musika zalea da. Lanean edo idazten ari denean musika entzutea gustatzen zaio. Seme bat musikaria dauka, gainera, eta kontzertu askotara joaten da. Elgoibarko Musika Bandaren kontzertuetara ere, ahal duen orotan joaten da, eta San Bartolome eguneko kontzertua ez du sekula galtzen. Baina bereziki, musika bandaren kalejira gustatzen zaio: "San Bartolome edo San Frantzisko kalean musika banda entzutea zoragarria da".

Erretiroa hartu berri du Pello Arrietak, baina ez dauka eskuak gurutzatuta egoteko asmorik. Elgoibarko ondareari buruzko liburua osatu eta sakondu nahi du. Elgoibartarrei herriko ondarearen berri eman nahi die, "ezagutzen ez dena, maitatzen ez delako".

Iban Urizar



Ohore bat

Gogoan dut solfeoa ikasten hasi nintzeneko garaia. Zeintzuk ziren gure nahiak eta gogoak orduan? Zerekin egiten genuen amets? Musikari bihurtuko al ginen? Edota gure logelako armairuan gorderik egongo zen kutxa marroxxa batean desagertuko ziren nahi horiek? 8-9 urterekin musika tresna bat jotzen hasten zarenean nekez jakin zenezake zertan bukatuko duen horrek. Gaur egun musika eskoletan hain modan dauden joera berrietako musika tresnek ez zuten lekurik orduan musika eskoletan. Auskalo zein ofiziotan ibiliko nintzen hasiera horietan gitarra elektriko, baxua edota bateria bezalako tresna aukeratu izan banu. Ez, nik tronpeta aukeratu nuen, eta bai, Bandan jo nahi nuen.

Ederki gogoratzen dut ikastolan Rejinak bandako kontzertuak ikustera bidaltzen gintuela. Horrelaxe entzun nituen lehen aldiz musika tresna ezberdin asko batera jotzen, bata bestearekin jolasean, konpartitzen eta musikaren magia erakusten. Elgoibarko musika banda entzuten. Liluratuta gelditzen nintzen jotzen zutenarekin, zirrargarria egiten zitzaidan bertan entzuten nituen harmoniak eta batutaren mugimenduak. Orduan ere Txominek esplikatzuten zituen obrak, nik ez nuen asko ulertzen, baina obrarik inportanteenak ziruditen bere ahotan. Gaur egun ere, horrela da.

1989ko azaroaren 12an egin nuen debuta bandan, 14 urterekin, orain 20 urte pasatxo beraz. Askok aldatu da dena urte guzti hauetan, eta geu ere asko aldatu gara. Bandako partaideak ofizio ezberdinak izango dituzte, afizioak zer esanik ez, adin zeharo ezberdinetako jendea gaude, baina astean behin denok batzen gara musika jotzeko. Bandak 125 urte betetzen ditu aurtan, 125 urte herriari musika eskaintzen. Ospatzekoa dudarik gabe. Urteetan ikasitakoagatik eta pasa ditudan momentu eder horientatik, ohore bat da bandako kide izatea. Mila esker.



**Julio
Perez-Cortes**
1944-1951

Badajozen jaio zen. 60 urte zituen eta alargunduta zegoen Elgoibarko musika banda zuzentzera etorri zenean. Beste hiru zuzendari aurkeztu ziren probetara, eta Udalak bera aukeratu zuen. Zazpi seme-alaba izan zituen, eta guztiei irakatsi zien instrumenturen bat jotzen. Horietako hiru, gainera, musika bandako kideak izan ziren. 1962an hil zen Badajozen.



**Julian
Iriondo**
1951-1956

Elgoibarren jaio zen 1920an. Bereziartuarekin hasi zen solfeoa ikasten, 7 urte zituela. 13 urterekin sartu zen bandan, onobena jotzen (tronpeta mota bat). Julio Perez-Cortesek azken bi urteetan zuzendari orde izan zen Julian, eta artxi-boetan 1951. urtea aipatzen da lehen aldiz Julian Iriondo zuzendari zela. 1956ra arte egon zen kargu horretan.



**Jose
Zubiaurre**
1957-1983

Elgoibarren jaio zen 1922an. Ballegoiti baserrikoa zuen aita, eta horregatik *Balle* bezala ezagutzen da herrian. 7 urte zituela, Ignacio Bereziartuarekin hasi zen solfeoa ikasten. Musikarako dohain handiak zituen, eta 14 urterekin sartu zen bandan. Onobena jo zuen lehenik, eta bombardinoa ondoren. 27 urtez zuzendu zuen banda. 2007an hil zen.



**Jose Antonio
Osoro**
1984tik

Elgoibarren jaio zen 1945ean. Amak eta osabak txertatu zioten musikarako zaletasuna, eta nerabezarrorako garbi zeukan musika izan nahi zuela. 12 urterekin sartu zen bandan. Hasieran saxofoia jotzen zuen, eta ondoren, klarineta. 1979an zuzendariorde aukeratu zuen Ballek, eta 1984ko Errege Egunean zuzendu zuen estreinako kontzertua.

Udal Musika Bandaren argazki albuma

Inazio Bereziartua zuzendari zela, 1913ko San Anton egunean ateratako argazkia. Frontoiaren atzeko aldean aterata dago argazkia, gaur egungo Giza Eskubideen parkean.



1923ko San Bartolome egunean Eibartik etorritako hainbat musikarirekin eskaini zuten kontzertua. Kultur Etxe aurrean aterata dago argazkia.



Julio Perez Cortesek zuzendutako taldea eta German Uriguen 'Etxeginak' zuzendutako danborrada agertzen dira argazkian. Muguruzatarren etxearen atzean aterata dago argazkia, gaur egungo Giza Eskubideen parkean, 1947an.



1950ean diru bilketa benefiko batean hartu zuen parte Elgoibarko Bandak Donostian.



1985eko argazkia. 100 urte egin zituen urte hartan.



Jose Joaristi parrokoaren hileta, 1965eko abuztuaren 30ean. Saturixo inguruan izandako auto istripu batean hil zen, herriko alkate eta zinegotziekin hileta batera zihoanean.

2007an 50 urte egin zituen Katxok bandan, eta omenaldi berezia egin zioten.





Gasolina asko isuri zuten erreka Altzolako San Juan sua pizteko: “Altzolako San Juan sua ikusgarria izaten zela esana ziguten, eta San Juan bezperan hara joan ginen, Elgoibarkoa urtetik urtera eskasagoa delako. Sigman piztu zuten iaz sua, eta ez zitzaigun batere leku egokia iruditu. Horregatik, Altzolara joan gara aurten, haurrak hartuta. Ikusgarria izan zen Altzolakoa, baina lotsagarria iruditu zitzaidan sua pizteko gasolina erabiltzea. Horren beharra al zegoen? Lehen ere ez dugu erreka garbia, eta sua pizten ari zirenek erreka zenbat gasolina isuri zuten ikusi ostean, sututa itzuli nintzen etxera”.



Koltxoi bat dago Deba ibaian: “Egun pila bat daramatza koltxoi batek Deba ibaian. Gaizki dago zikinkeria erreka botatzea, baina hori bezain salagarria da zikinkeriak ikusi eta ez ateratzea. Nik uste nahikoa denbora egon dela koltxoi hori ibaitik ateratzeko. Dagokionari eskatu nahi nioke mesedez, koltxoi hori uretatik ateratzeko, eta herritarrei, berriz, ibaira zaborrik ez botatzeko eskatzen diet. Mila esker”.



Sanlo EKTk eskerrak eman dizkie zapatuko jaietan parte hartu zuten guztiei: “Mila esker gurasoei, jokalariei, entrenatzaileei, zuzendaritza batzordeko kideei eta laguntzaile guztiei, joan zen larunbateko sanlofesta afari arrakastatsuan parte hartzeagatik eta laguntzeagatik. Esker bereziak Baltasar, Gure Bide, Sallobente eta San Roke elkartei euren egoitzak eta sukaldeko tresnak lagatzeagatik; baita Elgoibarko Udalari ere afaria egiteko lekua lagatzeagatik eta udaleko langilei, emandako laguntzagatik. Bide batez barkamena eskatu nahi dugu, nahi gabe sortu ahal izan ditugun eragozpenengatik”.



Zorionak eman nahi dizkiet Mendaroko Trixixapo aisialdi taldekoei: “San Juan bezperan sekulako giroa sortu zuten Mendaron, eta umeek eta guk geuk ere, oso ondo pasatu genuen. Karaokean nahikoa barre egin genuen, gure seme-alabak kantuan ikusita. San Juan sua janzteko ekitaldi polita antolatu zuten. Guk behintzat primeran pasatu genuen”.





BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

LAB sindikatuak Zaher lantokiko zuzendaritzaren jarrera salatzen du

LAB sindikatuak gogor salatu nahi du Elgoibarko Olaso poligonoan kokaturiko Zaher enpresak ABLEen (ETTak) bidez langileak kontratatzen hasteko duen asmoa. Aipaturiko enpresa honek, orain arte egin ez duen bezala, ABLE baten bidez hasi nahi du langileak kontratatzen. Enpresaren esanaren arabera, ABLEen bidez kontratatzeko arrazoiak langile batzuk bajan daudela da. ABLEen bidez kontratatu nahi dituzten langile horiek astebetarako edota denbora gutxiagorako kontratuak sinatuko dituzte. Aspalditik dakigu ETT edo ABLEak prekaritatea barreiatzen dabilzan espekulaziale ase ezinak direla. Azpikontratazioaren bitartez, lanean dauden langileak ez dira enpresa nagusiko langileak izango, ABLEak edo zerbitzu enpresak kontratatutako langileak baizik. Egoera honek langileen batasuna apurtzen du kontratu motaren arteko bereizketa eginenez, ezegonkortasuna, lan baldintza kaxkarrak, eskubideen alde borrokatze-ko eskubide eza, lan istripuetarako arrisku handiagoa... dakar.

Badirudi, jadanik eskualdeko enpresari batzuk lan erreformari zukua atera nahian hasi direla. Argi eta garbi utzi nahi dugu, LAB sindikatuak orain arte egin duen bezala, ETTen kontrako borrokan jarraituko duela eta ETTen bidez prekaritatea barreiatu nahi duten enpresariak publikoki seinalatuko dituela.

ABLErik ez! Prekarietaterik ez!

LAB

Zapatuetako basakeria Elgoibarren

Zapaturo, eta badira 30 urte, ahalik eta kalte handiena egitera etortzen diren ehunka gazteren basakeria jasaten dugu elgoibartarrok. Borroka eragiten dituzte, eskapateak, portalak, herritarren autoak eta kaleko lorontziak apurtzen dituzte, eta portaletan txisa egiten dute, besteak beste.

Hilaren 19an, 21:40ak aldera, bost gaztek kristalezko botila bat jaurti zuten 21 hilabeteko ume bat zeraman auto baten kontra. Barruan gindoazenok sekulako sustoa hartu genuen. Pentsa zer gertatuko litzatekeen botila horrek umea jo izan balu! Horregatik, aski da esaten dugu. Laster telebistako Euskadi Directo saiokoak etorriko dira gure herrira, Elgoibarren zer gertatzen ari den ikustera.

Pello Plaza

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARREn edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete behar dituzte:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakunde zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutizk argitaratuko.

Barren

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

Nafarroa plaza, 2 · 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:





Arkaitz Irureta

Futbol zalia haiz, Justo? Ba ni ez! Jubilatatu berri dan Etxeberen adiñekua izanda, umetatik baztertu gindduezen berarekin jolas- teko bezain onak ez giñelako eta

sobrekin iñoizko talderik eskaxena osatu genian: Tximista. Halere, urteen poderioz, eskerrak eman beharrean nagok.

Nik kirola beste era batera bizi diat: emaitzengatik iñor baztertu gabe, lagun artian.

“Nik kirola beste era batera bizi diat: emaitzengatik inor baztertu gabe, lagun artian”

Informazioaren aroko herriaren opioa dan “*panem et circenses*” honetan parte ez hartzearen ere harro nagok. Trikimailu zahar bezain lotsagarria dok futbolak ze dirutza publiko eramaten dian jendia entretenitzeko, eta bittartian, militarrei edo AHTri eskerrak, politikariak aberasten, pentsiodunen eta langillien zergen kontura. Aupa Real, eta Aupa Espaiña!

Aurreko atal honetan Andresek eta Angelek esandakueri aportazia egin nahixan, Interneten Berdeen diputatuaren hitzez gain, bizikleta munduan famatua egin dan bideo bat ere badagok: Cancellararen dopatutako bizikletiana hain zuzen. Esaten juek Cancellarak karrera batzuk motor bat ezkutuan daruan bizikleta batekin irabazi dittula.

Bazuan ordua teknologixia gizartian esku garatzekua, eta ez militarren esku. Asmakizun hori mundiala dok, ez jaok iñori miñik egin (kaltia igual gaiñontzeko txirridularixeri egin jauek bere iruzurrak), eta gaiñera erabillera oso popularra jaukak, lanera bizikletaz juateko iraultzarekin bat zatorrek eta!

Horrela, bai, ulertzen juat eliteko kirola. Aupa Cancellara!



Justo Arriola

Badittuk zazpi urte inguru Realaren partida batzutara juan nintzala, baiña ez, ez jauat kasorik egiten futbolari. Orduan ere nere zati haundi bat futbol profesionala dan zirkuari so jauan: jendetzia zela masa oihulari bihurtu, hainbeste emozio milloidunen koadrilla baten ostikadetan jarritta, agresibitatia, adimena desagertua... Enpresen markak edonon, “...jokaldi onenak esaintzen dizkizue”. Bedarra bezain artifiziala dan negozio galanta. Seme-alabak hezitzeko aproposa.

Gaiñera, politikuak eta boteriak propaganda zabaltzeko erabiltzen juek, bandera eta abarrekin jendiaren sentimenduak manipulatu nahixan: palkuetan jartzen diranak eta harmailleta-ko artaldia elkaturik, “etsaiaren” aurka. Gertatzen dittuk, baiña, gauzak gidoitik kanpo ere: Espaiñaiko erregiari dedikatutako txistuak edo Tesalonikako futbol-zelaixan zale greziarren “erre dadilla, erre dadilla parlamentu putia” garrasixak, adibidez.



“Badakik zela esaten jauen FIFARI? Ba, THIEFA (lapurra)”

Herritarren %40 inguru lanik gabe dagan Hegoafrikan AHT bat estreiñatu juek Mundialarekin batera, eta itxura politta ematien, protestaldixak debekatziatz gaiñ txiroak kendu jaittuek turisten bistatik. Badakik zela esaten jauen FIFARI? Ba, THIEFA (lapurra).

Herriaren opioa baiño gehixau erlijua dok barren, fededunak (ikusliak) ez jok Jainkoa (baloia) ikutzen-eta. Eliteko kirola, Cancellararen tranpa, edozelan irabaztia... nun geratzen dittuk jolasaren poza eta plazerra? “Benetan diotsuet: ume bihurtzen ez bazerate...”



Elgoibarko Udala



Txarridunak irabazi du bigarren urtez Pintxo Lehiaketako sari nagusia

Lojantzi tabernako pintxoak irabazi du Herritarren Saria

Bigarren urtez jarraian sekulako estimazioa izan du Elgoibarko Pintxo Lehiaketak. Hamabi tabernak parte hartu dute aurten lehiaketan, eta haietako bakoitzak 500 pintxo zerbitzatu ditu batez beste bi egunean.

laz bezala, Txarriduna taberna saritu du aurten epaimahaia Pintxo Onenaren

Sariarekin, eta Lojantzi tabernaren pintxoak eskuratu du Herritarren Saria. Bigarren sari hori bozketa bidez aukeratu zuten. Guztira, 5.400 herritarrek parte hartu zuten bozketan, eta Lojantzi tabernako pintxoak jaso zituen boto gehien. Sariak banatuta, dastatze publikoa egingo da gaur Plaza Handian, 12:30ean hasita.



Hemezortzi lagunek parte hartu dute aurten Tertuliak programan

Hamargarren urtea da Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak Tertuliak programa antolatzen duela, Udalaren laguntzarekin, eta aurten hemezortzi lagunek parte hartu dute. 2009ko azaroaren 2tik ekainaren 17ra, sei bidelagun [euskaldun zaharrrak] eta hamabi bidelarik [euskaldun berriak] parte hartu dute, eta guztira, 30 ordu eman dituzte euskaraz berbetan. Aurten zortzi lagun berri gehitu dira Tertulietako taldera, eta antolatzaileak "oso pozik" agertu dira lortutako emaitzarekin. Era berean, aurreratu dute urrian zabalduko dela datorren urteko programan izena emateko epea.

Arnaldo Otegi libre lagatzeko eskatu dute hainbat herritarrek



Arnaldo Otegiren aldeko elkartasun erretratua atera zuten zapatuan Elgoibarren. Berrehun lagun inguruk egin zuten bat Otegiren aldeko herri plataformak egindako deialdiarekin, eta Batasuneko bozeramaile izandakoaren preso zenbakia zera-maten kamisetak jantzita agertu ziren haietako asko. Deialdiarekin bat egin zutenek Otegi libre lagatzeko eskatu zuten, eta Euskal Herrian politikari aukera bat ematea aldarrikatu. Argazkia egin aurretik, Mikel Olaizola bertsolariak pare bat bertso kantatu zituen, eta ondoren, Angel Ugarteburu plataformako kideak eskerrak eman zizkien argazkirako bildu ziren guztiei.

Ekitaldia **MEK**Ako diploma banaketa



Barixakuan Meka ikastetxeko diploma banaketa egin zen Herriko Antzokian. Ekitaldian azken bi urteotan Mekako ikasle izan diren eta bai gizartearentzat eta bai ikastetxearentzat erreferente diren balorearen batean nabarmendu diren lau ikasle saritu zituzten: Elsa Sanchez, Ibai Leon, Evarice Kone, eta Oihane Ubera.

Pertsonaia **Antton Zubiaurre**

Antton Zubiaurre Spilur elkarte publikoko zuzendari eta Mendaroko alkate (EAJ) izandakoa atxilotu zuen joan zen barixakuan Ertzaintzak, industria espioitza egotzita. Polizia iturriak aipatuz berri agentziek zabaldu zutenaren arabera, Zubiaurre beste persona baten posta elektronikora sartzen zen ustez, "garrantzi handiko informazioa" eskuratzeko. Deklarazioa hartu, eta libre laga zuten Zubiaurre barixakuan bertan, karguekin. Jaurritaritzak 1995ean sortu zuen Spilur, eta Juan Jose Ibarretxe lehendakariaren agintaldian Zubiaurre izan zen bertako zuzendaria.

Irudia **Greba orokorra**

Lan erreformaren kontra gehiengo sindikalak deitutako greba orokorrak oihartzun zabala izan zuen Elgoibar eta Mendaron, LABen arabera. Grebaren deitzaileentzat –ELA, LAB, ESK, EILAS, EHNE eta Hiru– greba "arrakastatsua" izan da oso, eta industrian eta merkataritzan izan du eraginik handiena. Grebak egiten diren aldiro gertatzen den bezala, baina, sindikatuen balorazioa eta patronalarena ez datoz bat. Patronalaren arabera, grebak "jarraipen eskasa" izan du.



Gemma Monrealen koadro bat zozketatu dute Afrikako haurrei laguntzeko

Jatabegintzak Gemma Monreal margolariaren koadro bat zozketatu du, ezinduentzako zentro batean bizi diren Afrikako 50 umeri laguntzeko errifa erosi dutenen artean, eta Esther Mugertzari egokitu zaio saria. 0001 izan da zenbaki sariduna.



Asturiasera bidaiakulturala antolatu du Haizeak

Haizea emakume taldeak Asturiasera irteera bat antolatu du hilaren 10eko astebururako. Xixon eta Oviedo bisitatuko dituzte, besteak beste. Izena eman nahi duenak edo informazio gehiago nahi duenak 943 743 206 telefonora deitu dezake (Pitxintxu).

Herritar baten kexa komunikabideetan

Zapatuetan Elgoibarren izaten diren "basakeria guztiekin" nazkatuta dagoen herritar batek ekintzara pasatzea erabaki du. Bizi duen egoera komunikabideen bitartez salatu nahi du lehendabizi, eta ETB2ko Euskadi Directo saiora deitu du gai honen inguruan erreportaje bat egin dezatela eskatuz. Era berean, karteletan josi ditu Pedro Muguruza kaleko atari eta hormak.



MENDAROARREN 'QUEBRANTA'

Asko dira Quebrantahuesoseko perfilak liluratuta dituen txirrindulariak. 205 kilometroko ibilbidea eta 3.500 metro inguruko desnibela, Piriniotako paisaia paregabe. Somport, Marie Blaque, Portalet eta Hoz de Jaca mendateak gainditu behar izaten dituzte izena ematea lortzen dutenek. Izenemateak, hala ere, zozketa bidez egin dira aurten, eta loteria horretan saririk gabe gelditu diren zenbait lagunengatik, Mendaroko Txirrindulari Elkarteak irteera berezia antolatu zuen zapaturako.

Ainara Argoitia

Ekainaren 26a, Santa Orosia jaiak Jacan. 8:15ak dira, eta eguzkia hasia da berotzen. Bezperaz irten-dako batzuk garagardoa eskuan dutela dabilta artean, balantzaka, etxerako bidean itzal bila. MTE Mendaroko Txirrindulari Elkartekoentzat, berriz, une horretan hasten da eguna. 205 kilometro egin behar dituzte bizikleta gainean, eta egiten duen beroa ikusita, arriskua dute eurek ere Jacara balantzaka iristeko, baina indartsu daude artean.

8:30ean abiatu dira hamabost txirrindulariak, eta laster da atzetik haien segizioa, bederatzi laguneko taldea, bidean atzean gelditzen direnak jasoko dituen furgoneta hartuta. Urtean zehar 1.000 kilometro inguru pilatu dituzte gorpil gainean gutxien ibili denak, eta badira 5.000 kilometro baino gehiagorekin iritsi direnak ere. Taldean abiatu dira, hala ere, Jacara taldean iristeko asmoz. "Hau ez da lehia. Disfrutatzen goaz", diote MTEko zuzendaritzakoek.

Elkarrekin doaz lehenengo kilometroetan. Aldapak, hala ere, nor bere lekuan jarriko du laster. Eguneko lehenengo mendatean, Somporten gora (1.640 metro), zatitua doa tropela. 687 metroko desnibela gainditu behar dute hemeretzi kilometroan, eta unerik gogorrenetan, %7ko aldapak ere bai. Eguzki galdatan doaz, bakoitza bere erritmoan, pulstometroari adi. Marie Blanqueri errespetu handiagoa diote gehienek, eta indarrak gorde nahi dituzte. Bidean Mendarotik joandakoen karabanak pasatu ditu. Ordurako, beste bi euskal herritar gehitu zaizkie tropelera, eta bidean dozenaka txirrindulari laga dituzte atzera. Arriskutsua da oso Somport jaistea. Bihurgune asko ditu, eta ilaran doaz, tentuz.



Mari Blanquen, hamaiketakoa

Escotetik Marie Blanqueko gainera bederatzi kilometro eskas daude, baina batez besteko aldatza %11koa da, eta %16ko arrapalak ere gainditu beharko dituzte. Jakin badakite, baina, Marie Blanquen hamaiketakoa dutela zain: tortilak, urdaiazpikoa, txorizoa, patatak, kakahueteak... txirrindulari batek lasterketa batean nekez jango lituzkeen janei erreparorik gabe heldu diete. Orduerdi inguruko atsedaldia, eta aurrera berriz ere. Erdia baino gehiago falta zaie oraindik. Lautada handi batzuk pasatu, Aubisquera doan errepeidea ezkerrean laga, eta Portalet aurrez aurre. Luzea (29 kilometro), gogorra eta arboladirik gabekoa. Infernua, eguzkia gain-gainean dagoenean. Eta han hasi zaizkie lehenengo arazoak. Bi txirrindulari laga egin behar izan dute, giharreak gogortuta batek, eta kalak apurtu zaizkiolako besteak. Ezinean doa beste bat, eta Portalet gainean jarri zaien txapel beltza ikusita, erre-

tiratzea erabaki du. Astebete aurretik Quebrantahuesos ofiziala egin zutenek pasa behar izan zuten infernua etorri zaie burura bati baino gehiagori, eta gustura hartu dituzte furgonetan doazenean banatu dizkieten zira eta gainerako erropak. Euri tantek dardoak dirudite. "Eskerrak Portaletoko jaitsiera ez den Somportekoa bezain bihurria", dio haie-tako batek. Jo dute gaina, baina eguraldiak hartu duen itxura ikusita, Hoz de Jaca hurrengorako lagatzea erabaki dute guztiek. Quebrantahuesosen sufritzea nahitaezkoa dela jakin badakite, baina ez daude behar dena baino gehiago arriskatzeko prest. Trolepean iritsi dira Jacara, eta afari eder batekin ospatu dute txirrindulariek eta haiei laguntzera joan direnek, denek elkarrekin.

Kirolaria izatea gogorra da, baina, eta Portaletek lortu ez duena lortu du garagar-dok: bat baino gehiago balantzaka jartzea.



Txirrindulariak Marie Blaque mendatean gora, irribarretsu artean.



Marie Blaquen hamaketako ederra zuten zain txirrindulariek.



Portaleten, hankak luzatzen.



Hortzak estututa, ahalegin betean.



Ezkerrean, txirrindulariak Portaleten gora, Mendarotik joandako jarraitzaileak agurtzen. Ezkerrean, Txomin Aranberri, Portaleteko magalean, bolak igota, semeak emandako masajeak hartzen.



Jan gabe ez dago 205 kilometroko ibilbidea egiterik.



Ibilbidean zehar, paisaia paregabeaz gozatzeko aukera izan zuten txirrindulariek.



Aldapak nor bere lekuan jarri zuen gero Marie Blaquen.


Munduko Futbol Txapelketa final laurdenetara iritsi da.

Zeinek irabaziko du Munduko Futbol Txapelketa?



Unai Ortuoste
15 urte, ikaslea

Nire ustez Alemaniak irabaziko du. Argentina ere gustatzen zait, baina Alemaniak talde hobea dauka. Mesut Ozil jokalaria da onena. Espainiak ere oso talde ona dauka, baina nahiago dut irabazten ez badu. Kirola gustatzen zait, eta Frantziako Tourra ere jarraituko dut.



Ander Leon
19 urte, ikaslea

Espainiak irabaziko duela uste dut. Oso talde ona dauka, eta Villa da nire ustez jokalaririk onena. Egia esanda ez zait asko inporta irabazi edo galtzen badu, baina oso ondo jokatzen du, eta gustatzen zait partidak ikustea. Futbola izugarri gustatzen zait.



Ibare Barbero
15 urte, ikaslea

Egia esanda ez dut jarraitzen Munduko Futbol Txapelketa, baina Alemaniak irabazteko aukera handia duela uste dut. Berdin zait nork irabazten duen. Ez naiz futbol zalea eta oso partida gutxi ikusi ditut. Espainiak Portugalen kontra jokatu zuena ikusi nuen apur bat, baina ez gehiegi.



Amaia Arregi
14 urte, ikaslea

Argentinak irabaztea nahi dut. Talde sendoa dauka, eta txapelduna izateko aukerak dituela uste dut. Argentinak edo Brasilek irabaziko dute txapelketa. Espainiaren partidak ikusten ditut, galtzen ikusteko! Komunikabideek fama handia eman diote, eta galtzea merezi dute.



ESKERTZA

JOSE MORCILLO ROMERO

2010eko ekainaren 25ean hil zen.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

JESUS ULAZIA MALLEA

2010eko ekainaren 26an hil zen, 78 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Hasi dira udalekuak

Kirolaren eta jolasaren bidez partaidetza eta elkarkidetzaz sustatzea dute helburu

Hasi dira Atxutxiamaikaren udalekuak. Udaleku irekietan, 2 eta 8 urte bitarteko 165 ume daude izena emanda, eta 24 begirale ari dira haiekin lanean. Udaleku itxietan, berriz, bi talde handi egin dituzte. Uztaileko udaleku itxietan, Zarautzen, 31 ume daude lau hezitzailearen karguan, eta abuztuan, Irañetan egingo duten bigarren egonaldian, beste 26 ume izango dira, zortzi hezitzaileekin. Bestalde, hilaren 7rako, San Fermin txiki eguna antolatu du Atxutxiamaikak herriko haur guztientzat, Plaza Handian. 10:00etan pregoia irakurriko duen umea aukeratu dute zozketa bidez. 10:30ean, pregoia irakurri ondoren, entzierroa hasiko da. Poneyak izango dira gero 2 eta 9 urte artekoentzat, eta zezen mekanikoak, zaharragoentzat. Gaztelu puzgarrariak ere izango dira, eta 12:30ean, txorizoa banatuko dute.

Kirol udalekuetan, 186 ume

Kirol udalekuak ere astelehenean hasi ziren. Udan kirola eginez partaidetza eta naturarekiko errespetua bultzatu eta lagun artean ondo pasatzeko helburuarekin antolatu zituen lehenengoz udalekuok Udal Kirol Patronatuak, eta aurten hirugarren edizioa dute. 6 eta 13 urte bitarteko 186 ume ari dira kirol udalekuetan parte hartzen, iaz baino 21 lagun gehiagok. Kirol ezberdinetan aritzeko aukera dute haurrek: mendiko bizikleta, golfa, futbola, uretako jolasak, frontoiko jokoak...



Sanjuanei erreleboa hartu diete Idotorbe-San Pedroko jaiek



Kanpaikadekin hasi zituzten astelehenean San Pedro jaiek Idotorben, eta gaurtik igandera bitarterako, egitarau zabala prestatu dute antolatzaileek. Martitzenean, San Pedro Eguna ospatu zuten auzotarrek. Meza nagusiarekin hasi zuten eguna, eta ondoren, hamaiketako egin zuten, Goikoetxe, Saizar, Zahatzu eta Armuetaren eskutik. Eguerdian Lagunak pilota elkarteak antolatutako pilota partidak jokatu zituzten, eta ondoren, bazkaltzeko batu ziren auzotarrak eta jubilatua. Jon Ostolaza eta Unai Andonegi trikitilariak jardun zuten egun osoa giroten.

Gaur berriz helduko diete jaiei. 21:00etan lagun arteko afaria egingo dute, eta ondoren, 23:00ak bueltan, mus txapelketa jokatu dute. Baina ez dira hor amaituko jaiek. Izan ere, biharko eta etzirako egun osorako ekitaldiak antolatu dituzte. Agenda atalean daukazue egitarau osoa ikusgai.

Iñigo Larizek irabazi du bigarren aldiz Nahaste Borraste herri proba

Guztira, 33 lagunek hartu dute parte

Joan zen barixakuan jokatu zen Nahaste Borraste herri proba. 33 lagunek parte hartu zuten, eta Iñigo Lariz izan zen helmugaratzen lehena, 18:42 denborarekin. Jorge Gonzalezekin lehia ikusgarria eduki zuen Larizek hasieratik, eta hiru segundoko aldea besterik ez zion atera. Iñigo Larizek errekor berria ezartzeko helburuarekin ekin zion probari, baina ezin izan zuen iaz David Condek egin zuen denbora ondu (18:25). Emakumezkoetan, Ainhoa Lendinezek baino ez zuen parte hartu, eta 21:21 denborarekin sailkapen nagusiko 11. postuan amaitu zuen proba. Argazki gehiago eta bideoa ikusteko: www.elgoiBARREN.net



Sailkapena

1. Iñigo Lariz	18:42
2. Jorge Gonzalez	18:45
3. Jose Antonio Ruiz del Rey	19:03
4. Txus Agirretxe	19:53
5. Gorka Iriondo	20:05
6. Jon Agirrebeña	20:10
7. Jose Felix Iglesias	20:15
8. Alberto Zelaia	20:32
9. Iñigo Salegi	21:01
10. Jon Basurto	21:12
11. Ainhoa Lendinez	21:21
12. Aitor Romera	21:22
13. Josu Iriondo	21:39
14. Sugar Etxaniz	21:40
15. Sergio Galindo	21:49
16. Luis Anakabe	21:58
17. Juan Jose Martinez	22:03
18. Asier Jauregi	22:13
19. Dionisio Gorria	22:23
20. Juan Jose Etxeberria	22:29
21. Jose Ramon Ortuoste	22:31
22. Arkaitz Irureta	22:44
23. Roberto Alonso	22:52
24. Jose Luis Vitores	23:07
25. Mikel Gabilondo	23:10
26. Anton Mendizabal	23:24
27. Asier Jauregi	22:13
28. Julian Rodriguez	25:35
29. Amadeo Antonio	26:32
30. Manolo Dominguez	26:56
31. Antonio Fernandez	27:31
32. Josu Zubiaurre	27:44
33. Jose Mari Diez	28:16

Elgoibarko eta Mendaroko hamar lagunek amaitu dute Hiru Handiak proba

Beroa eta nekea dela-eta askok eman zuten amore



Ezkerrean, Pedro Alvarez eta Modesto Cid. Eskuinean, mendizale talde bat, Landara iristen.

Gogorra, oso gogorra. Halakoxea izan da Hiru Handiak iraupen luzeko mendi martxa, bukatzea amaitu dutenen esanetan. 24 orduan gehienez, ehun kilometroko ibilbidea osatu behar izan zuten parte-hartzaileek, eta Gorbea (1.482 m.), Anboto (1.528 m.) eta Aizkorri (1.528m.) lotu. Aurreko urteetako ibilbide bera, baina atzekoz aurrera aurten. 1.600 lagun inguru irten ziren Gopegitik barixaku gauerdian, baina askok laga zuten Araiara iritsi aurretik. Beroak eta ibilbidearen beraren gogortasunak amore ematera behartu zituen parte hartzaileetako asko. Elgoibartik eta Mendarotik ere joan ziren ordezkariak, eta Jose Ramon Sousa mendarorrek egin zuen guztietan denborarik onena: 14:47:29. **Argazkiak: Edu Uribe** (<http://mendilas-terketa.blogspot.com>).

Hiru Handietako infernua

Guztira 1.600 lagun inguruk hasi zuten Hiru Handiak iraupen luzeko mendi martxa, baina asko erretiratu egin behar izan ziren. Elgoibartik eta Mendarotik ere hainbat lagun joan ziren, baina honako hamar lagun hauek amaitu ahal izan zuten ehun kilometroko proba.

SAILKAPEN NAGUSIKO POSTU ETA DENBORAK

23. Jose Ramon Sousa	14:47:29
49. Josu Mendikute	16:04:42
67. Aitor Osoro	16:43:11
87. Gotzon Zulaika	17:17:16
100. Jesus Mari Astorkia	17:38:56
220. Oskar Goikoetxea	19:44:25
230. Tomas Arrieta	19:48:26
231. Tomas Peña	19:48:29
273. Cesar Fidalgo	20:20:02
587. Pedro Alvarez de Pablo	23:10:08

Hiru elgoibartarrek parte hartuko dute bihar Arrateko auto igoeran

Arrateko Igoera jokatu da bihar. Guztira, 50 gidarik hartuko dute parte, eta aurtengoa, iazkoa bezala, Espainiako igoeren txapelketarako puntuagarria izango da. Hori dela eta, maila handiko autoak ikusiko direla iragarri dute antolatzaileek. Gidarien artean hiru elgoibartar izango dira: Josemi Gabilondo (Renault Alpine A-110), Jesus de la Fuente (Seat 124) eta Aitor Arrieta (Renault Clio Sport). Lehenengo biek Espainiako historikoen mailan parte hartuko dute, eta Arrietak, berriz, N mailan. Etxeko lasterketan lan txukuna egitea espero dute hirurek. Gaur, 15:00etatik aurrera, autoen berifikazioak egingo dira Eibarren, Untzaga Plazan, eta larunbatean goizeko 8:30etatik aurrera, jokatu dira las-



Argazkian, Aitor Arrieta. Arg: A. Zabala.

terketaren sei mangak. Goizez A faseko hirurak, eta arratsaldeaz, B fasekoak.

Beñat Urain, Espainiako Txapelketan

Beñat Urainek hemezortzigarren amaitu zuen joan zen domekan Albaceten, Txirindularitzako Espainiako Txapelketan. 225 kilometroko ibilbidea osatu behar izan zuten txirindulariek, eta Caise d'Epargneko Ivan Gutierrez izan zen helmugaratzen lehenengoa. "Lasterketa oso gogorra izan zen, ibilbidea bera baino gehiagotatik egiten zuen haizeagatik eta hartu zuen abiaduragatik", adierazi du Beñat Urainek.



LANA

ESKAERA

- Neska lanerako prest. Nagusiak edo umeak zaindu, garbiketa lanak... Papelak dauzkat.
☎ 662 247 584
- Mutil gaztea edozein lan egiteko prest.
☎ 633 517 236
- 35 urteko emakumea edozein lan egiteko prest.
☎ 666 781 401
- Emakumea lanerako prest. Interna bezala edo orduka. ☎ 628 014 327
- Gizona lanerako prest. Margolari, igeltsero laguntzaile edo elektrikari lanak egingo nituzke.
☎ 606 612 834 (Raul)
- Emakumea lanerako prest. Nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketa lanak egingo nituzke. Orduka edo interna. ☎ 671 476 869
- Emakumea lanerako prest. Etxeko lanak egiteko edo umeak eta nagusiak zaintzeko prest.
☎ 686 234 612
- Emakumea arropak lisatzeko prest.
☎ 943 531 103 (20:00etatik aurrera)
- Gizonezkoa gidari lanak egiteko prest.
☎ 650 538 274
- Emakumea lanerako prest. Nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketa lanak egingo nituzke. Orduka edo interna. ☎ 647 065 746

- Emakumea lanerako prest. Nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketa lanak egingo nituzke. Orduka edo interna.
☎ 669 311 385
- Emakumea abuztuan lan egiteko prest.
☎ 606 169 667

ESKAITZA

- Zerbitzaria eta sukaldari laguntzailea behar dira.
☎ 943 743 196

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUA ETA SALMENTA

- Apartamentua alokatzen da Santo Domingo de la Calzadan (Errioxa). Erdigunean. Prezio onean.
☎ 941 341 437 / 676 882 373 (Esther)
- Etxea salgai Mendaron. Mendarozabal plazan. Hiru logela, egongela, sukaldia eta bainugela.
☎ 943 033 493

GARAJEAK

- Garajea salgai edo alokairuan Jausoron (Plaza Handitik gertu). 17metro koadro. Motoa gordetzeko edo trasteleku modura erabiltzeko egokia. Merke.
☎ 669 022 573 / 943 740 146

- Garaje itxia alokatzen dut udaletxe aldamenean.
☎ 628 764 686
- Autoa edo furgoneta sartzeko moduko garajea alokatzen dut Santa Ana kalean. Merke.
☎ 646 966 198

BESTELAKOAK

- Belarritakoa galdu dut tren geltoki inguruan. Perla urdina dauka, eta brillanteak.
☎ 676 889 260
- Perikito bat aurkitu dut.
☎ 680 696 403

PARTIKULARRAK

- Klase partikularrak emango nituzke uztailean. Goizez.
☎ 688 664 727
- DBHko gaztelania eta matematika eskolak emango nituzke ekainean eta uztailean. Talde txikiak.
☎ 943 744 206

OHARRA:

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak hiru astetan agertuko dira BARRENen eta astero *barren.iragarkilaburrak.com* atarian. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta **15 euro** eta alokairua **10 euro**. Autoak **10 euro**. Eta bestelakoak **5 euro**. Eguazten eguerdia baino lehen. Tel.: 943 743 704

MODULOAK

Lana / Bestelakoak
Astebete : 5 euro
2 aste : 8 euro
3 aste : 10 euro

Etxebizitzak/ Garajeak/ Motorra
Astebete : 10 euro
2 aste : 17 euro
3 aste : 25 euro



GAZTELEKUKO EKINTZAK

**UZTAILAREN
5ETIK 15ERA
UDALEKUETAN
EGONGO GARA,
ETA GAZTELEKUA
ITXITA
EGONGO DA.**



LUDOTEKAKO EKINTZAK

BARIXAKUA 2

Ludoteka zerbitzua Mintxetan 15:30

ASTELEHENA 5

Filma: *Lluvia de albóndigas* 16:00

MARTITZENA 6

Azpeitira irteera 15:00

EGUAZTENA 7

Mintxetara irteera 16:00

EGUENA 8

Lekeitiora irteera 10:00




• Zorionak, **Elia**, atzo 2 urte egin zenituelako. Ondo pasa, eta patxo handi bat gurasoen partez.



• Zorionak, **Jon**, San Fermín egunean urtetxo bat egingo duzulako. Patxo handi bat etxekoan partez.



• Zorionak, **Teshaletxol** 2 urte jada, gure altxor ederra! Maite-maite zaitugu. Paaaaaa!



• Zorionak, **Markel**, gaur 3 urte egin dituzulako. Patxo potolo bat familiakoan eta bereziki, Paula eta Jake-sen partez.



• Zorionak, **Luken**, 6 urte bete dituzulako. Etxekoan partez.



• Zorionak, **Paula**! Ondo pasa domekan, zure hamahirugarren urtebetetze-ko ospakizunean.



• Zorionak, **Jon**, atzo zure urtebetetzea izan zelako. Ia noiz batzen garenean, behar den bezala ospatzeko!. Koadrilakoan partez.



• Zorionak, **Idurre**! Urteak aurrera eta zu gero eta dotoreago! Ondo pasa zure eguna! Zure lagunen partez.




• Zorionak, **Ekain eta Galder**, atzo 6 urte egin zenituztelako. Muxu bana, familiakoan partez.



• Egun zoragarria aurrean daukagu, **Maddalen ta Eneko** ezkontzen zaizkigu. Egun ona pasa, bikote!



• Zorionak, **Maksim**! 9 urte handi! Ukrainieraz zoriontzien ez dakigu, baina ospatuko dugu behar den moduan, Mendaron.



• Zorionak, **Mendikutetarrak**! Sartu sagardo botila batzuk freskatzera biharko! Ondo pasa zuen urtebetetze eguna!



• Zorionak, **parejal**! Iritsi da zuen egun handia! Ondo pasa eta izan zoriontsu. Zuen Mendaroko lagunena partez.

OSPAKIZUNAK EZKONTZA



*Ezin pozago egon,
lagun eta etxeko,
motibo ederra da
pozik egoteko.
Ondo bizi zaitezte
eta zorioneko,
hain bikote aproposa;
Maddalen eta Eneko.*

Erretratu bakarrekoko agurra: 2 euro.

Argazki bikoitza: 3 euro.

Hirukoitza: 5 euro. Handia: 6 euro.

Norbait zoriondu nahi baduzu, argazkia **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar duzu. BARRENEko bulegora 12:00ak baino lehen, edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.

OKINDEGIA

4 domeka IBARRENEA

FARMAZIAK

24 ORDUZ

- 2 Ibañez
- 3 Garitaonandia
- 4 Garitaonandia
- 5 Etxeberria (Errosario)
- 6 Zabaleta
- 7 Yudego
- 8 Zabaleta
- 9 Etxeberria (Errosario)

Ibañez

Rekalde, 1 (SORALUZE)
Tel: 943 751 638

Fernandez

Herriko enparantza 4,
Garagartza (MENDARO)
Tel: 943 756 142

Zabaleta

Kalebarren, 9 (SORALUZE)
Tel: 943 751 384

INFORMAZIO GEHIAGO:



Egin klik

www.elgoiBARREN.net



4 domeka

Erakusketa

19:00 Arte erakusketa

Egur arte tailerreko ikasleek egi-
niko lanen erakusketa. Kultur
Etxeko erakusketa gelan.

7 eguaztena

Jaia

10:00 San Fermin Txiki

Atxutxiamaikak antolatuta, San
Fermin Txiki eguna ospatuko
dute.

Musika Bandaren 125. urteurrena

3 zapatua

12:00 'Elgoibarko Udal
Musika Bandaren historia'
liburuaren aurkezpena

Pello Arrietak idatzitako
liburua aurkeztuko dute
udaletxeko pleno aretoan.

19:00 Meza

Bandako kideek parte hartuko
dute bandan, eta bandera
berria bedeinkatuko dute.

19:45 Udal korporazioaren
harrera

Alkateak bandera berria
eskainiko dio bandako
zuzendariari. Pleno aretoan.
Ondoren, mokadutxoia egingo
dute, Giza Eskubideen
parkean.

4 domeka

10:30 Kalejira

Musika bandaren kalejira

12:00 Kontzertua

Herriko Antzokian.

Egitaraua:

1. *El abanico*, pasodoblea (A. Javaloyes).
2. *Euskaldunak irabazi*, martxa (Juanma Saez).
3. *The olympic spirit*, 1988ko joku olinpikoak (J. Williams).
4. *La giralda* eta *Ven Cirila*, aintzinako pasodobleak (Juarraz eta Martin Domingo).
5. *Basque rhapsody* (M. Shelton).



SAN PEDROKO JAIK

2 BARIXAKUA

21:00 Afaria

23:00 Mus txapelketa

3 ZAPATUA

10:00 Gisatu dastaketa

10:30 Idotorbeko motor
topaketa

11:00 Salda eta txorizoa

12:00 Motorzaleen irteera

14:00 Motorzaleen

bazkaria

16:30 Urmeentzako Molto
topaketa eta opariak

18:00 Gizon proba

23:00 Gaupasa, Imuntzo
eta Belokirekin

00:00 Bolo txapelketa

Goizaldean, txokolate
jana

4 DOMEKA

10:30 Meza

Ondoren, txalaparta

Ttakun bikotearekin

12:00 Euskal dantzak,

Eztei taldearekin

13:00 Goikoetxe eta

Eizmendi harri jasotzaileen
erakustaldia

17:30 Idi demak



«Alicia en el país de las maravillas»

2, barixakua: 22:30

«Loca obsesión»

3, zapatua: 22:30

AEB, 2010. Zuz.: Tim Burton. Akt.: Mia Wasikowska, Michael Sheen, Johnny Depp, Christopher Lee, Helena Bonham Carter. 108 min. Alice festa batera joango da, eta ezkontzeko mandatua egingo

diotela jakingo du. Untxi zuri baten atzetik abiatu, zulo batean sartu, eta Lurralde Mirresgarria helduko da. Leku hori lasaia zen garai batean, baina Erregina Gorriarekin gauzak okertu egin ziren.

ZEZEN-BIDE

AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa 18 urte bete baino lehen eskura dezakezu!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!



ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

- Euskarazko eta gaztelerazko klaseak
- Kreditutxarekin ordaintzeko erraztasunak

**5 EGUNEKO
TEORIKAKO
IKASTARO
TRINKOAK**

LEKUALDAKETA

San Frantzisko, 52 behea

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR



Gremioen GIDA



Aroztegiak

Asima

Mota guztietako arotz lanak
Ermuaranbide, 18
☎ 687 15 02 26
☎ 650 02 66 31

Biena

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 12-14-16 behea
☎ / Faxe: 943 74 31 16
www.biena.es
info@biena.es

Garcia

Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 943 74 32 38

Imar

Aroztegia
Olaso 15,55 pabilioia - A1
☎ 943 53 14 71
☎ 609 05 49 78
Era guztietako arotz-lanak

Lodoso Leihoak

Sigmako industrialdea
Xixilion 2-2. pabilioia - 3. zenb.
☎ 943 74 34 90
Faxe: 943 74 73 12
www.fjlocoso.euskalnet.net

Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47



Igeltseritza

E. Arandia

Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04

Lanusta

Etxe barruko erreformak
☎ 636 375 323
www.lanusta.com



Lorezaintza

Pagoa Ioradenda

Nafarroa plaza 1
☎ 943 74 01 89
☎ 688 631 307



Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

Ibámar

Bernardo Ezenarro, 2
☎ 943 53 18 47
☎ 647 463 436 (Floren)

Ongi

Pedro Muguruza etorbidea,
11 behea
☎ 943 25 45 22

Pagoaga

San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

Pagoerrota

Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

Tellabide

Azpilgoeta, 7 · MENDARO
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

Santana iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05
Faxe: 943 53 18 25

Zubizarreta instalazioak

Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44



Autoentzako tindatutako kristalak

Glas Control S.L.

Olaso 27, 47. pabilioia
☎ 943 74 30 94



Sarrailagintza

Giltzak

Arragueta, 3 (Eibar)
☎ 943 701 391
www.giltzak.com



Proiektu eta erreformak

Estudios Arrillaga

Errosario, 15 behea (Elgoibar)
☎ 943 744 055/943 744 019
Arragueta, 12 behea (Eibar)
☎ 943 200 698



Elektrizitatea

Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza
Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)
MENDARO
☎ 659 934 964

Urzelai

Santa Ana, 12-14
☎ 943 74 13 76/608 774 032



Pinturak

Biok dekorazioa S.L.

Upaiz zaharra, 14 behea
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

Ipintza

Foruen enparantza, 4
☎ 943 74 04 40
☎ 607 74 04 40

Ku Kolorea

Urasandi kalea, 26 behea
☎ 943 74 88 43
☎ 660 52 25 87

